

**AGINDUAREN TESTU BIRMOLDATUA, 1990.EKO APIRILAREN 4EKOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ESKOLA KONTSEILUAREN IARDUERA-ARAUTEGIA ONARTZEN DUENA. (E.H.A.A. 85 ZENBAKIA - 1990.EKO MAIATZAK 2).**

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAK eta Maiatzaren 10eko 172/1994 DEKRETUAK** egindako aldaketak eranstean dira.

Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseilua arautzen duen martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuko Aldibaterako Xedapenetatik Hirugarrenean, honako hau ezartzen zen: Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluak, sortu ondorengo 6 hilabeteko epearen barruan, bere iharduera-arautegia egingo zuela eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari aurkeztuko ziola onarpena eman ziezaion.

Aipatutako Aldibaterako Xedapeneko bigarren apartaduan, Kontseiluaren ihardunetarako aldibaterako erautegia lantzeko esku emanten zitzaion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, Kontseiluak behin-betikoa egin arteko indarra izango zuena.

Ahalmen horrez baliatuz, Euskal Autonomi Elkarteko Kontseiluaren iharduera aldibaterako finkatu zuen Agindua eman zuen 1989.eko azaroaren 24ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak.

Aipatutako Organu kolegiatu horrek, bere iharduna arautuko duen behin-betiko arautegia egin duenez, bidezko da, onarpena ematea arautegi horri.

Horiek horrela, honako hau

#### **XEDATU DUT:**

Atal Bakarra.- Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluaren Iharduera-Arautegia onartzea, Agindu honen Eraskinean eskaintzen dela horri dagokion testua.

#### **INDARGABETZE XEDAPENA**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluaren iharduna aldibaterako finkatuz 1989.eko azaroaren 24ean emandako Agindua, indargabetu egiten da.

Gasteiz, 1990.eko apirilak 4.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua,  
JOSE RAMON RECALDE DIEZ

## **EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ESKOLA KONTSEILUAREN**

### **IHARDUERA-ARAUTEGIA**

**1. atala.-** Honako hauek arautuko dute Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseilua: Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluari buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legeak, martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuak, Arautegi honek eta Administrazio Prozeduraren Legeak, arau subsidiario gisa.

**2. atala.-** Arau hauetan ezartzen ez direnetan eta horien aurka egon ez daitezenezaren baldintzapean, Plenoaren edo Batzorde Iraunkorraren akordioen arabera jokatu da, dagokion ekintza eremuaren arabera.

### **I. ATALBURUA.- ESKUDUNTZAK ETA KIDEAK**

**3. atala.-** Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluari buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legeko 7. atalean eta aurreko atalean aipatu den Legeko 14. atalean ezartzen denaren arabera, Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluari aholkua eskatu beharko zaio honako hauei dagozkienetan:

- a) Irakaskuntzaren programazio orokorrerako.
- b) Hezkuntzarako eskubidea benetan gauzatzeko, irakaskuntzaren askatasunari eta Konstituzioaren 27. atalean herri-aginteei ezartzen zaizkien betebeharrei zuzenean eragiten dieten lege-aurreproiektu eta erabaki orokorren proiektuetarako.
- c) Ikaspostuak sortu, kendu eta aldatzeko irizpideetarako.
- d) Ikastetxeak hornitu eta eraikitzeko arau orokorretarako.
- e) Euskal Autonomi Elkartean oinarritzko curriculum-diseinuak arautzen dituzten arau orokorretarako.
- f) Pedagogiazko programak eta orientabideak berritu eta esperimintatzeko planetarako.
- g) Irakaskuntza-maila bakoitzeko eredu-tako hizkuntza-helburuak eta hizkuntza-ereduen eskaintzaren plangintza egiteko oinarritzko irizpideak finkatzeko.

h) Ekintza berdintzaileak eta hezkuntza- integrazioa bideratzeko oinarrizko irizpideetarako.

i) Helduen etengabeko hezkuntzari buruzko oinarrizko helburuetarako.

j) Gizarteak hezkuntza-elkarteari egin diezazkion osagarriko prestakuntza-eskaintzei erantzuteko oinarrizko helburuak eta bateratzeko irizpideak zehazteko.

k) Giza baliabideekin, eta hauek prestatzeko eta hobetzeko beharrek zerikusirik duten langilego- politikari buruzko oinarrizko irizpideetarako. Hezkuntza- sistemaren gainontzeko baliabideak bidezkozteko eta erabat aprobetxatzeko inarrizko irizpideetarako.

l) Aukera-berdintasunerako ihardueraren, ekintza berdintzaileen eta hezkuntza- integrazioko ekintzen oinarrizko irizpideetarako.

**5. atala.-** 1. Honako hauek osatuko dute Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseilua, urriaren 28ko 13/1988 Legeko 10. atalean ezartzen denaren arabera:

- Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako sei irakasle, irakasleen Elkarte eta Sindikatuek egingo dutela horien proposamena, duten errepresentatibitatearen heinean.

- Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikasleen sei guraso, ikasleen Gurasoen Konfederakunde edo Federakundeei dagokiela horien izendapena egitea.

- Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako sei ikasle, ikasleen Konfederakunde edo Federakundeek, Elkarte eta Baterakundeek egingo dutela horien proposamena, duten errepresentatibitatearen heinean.

- Administrazio eta Zerbitzuetako langileen bi ordezkari, erakunde sindikalek egingo dutela horien proposamena, duten errepresentatibitatearen heinean.

- Ikastetxe pribatuetako bi titular, beren erakundeek egingo dutela horien proposamena, duten errepresentatibitatearen heinean.

- Euskal Autonomi Elkarteko Unibertsitateko ordezkari bat, Gobernu Batzordeak izendatuko duela.

- Langileen sindikatu etako hiru ordezkari eta erakunde patronaletako hiru ordezkari, Euskal Autonomi Elkartearen eremuan duten errepresentatibitatearen heinean.

- Hezkuntza Administrazioiko lau ordezkari, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak izendatuko dituela.

- Hezkuntza arloan izen handikoak diren lau pertsona, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak izendatuko dituela.

- Toki Administrazioiko sei ordezkari, Euskal Autonomi Elkarteko Udal Elkarte edo Federakundeek egingo dutela horien proposamena duten errepresentatibitatearen heinean eta Lurralde Historiko bakoitzak Kontseilari bat behintzat izan dezan bermatu beharko dela.

- Euskal Autonomi Elkarteko Doktore eta Lizentziatuen Kolegioko ordezkari bat.

- Pedagogia Kolektiboetako ordezkari bat.

- Euskal Autonomi Elkarteko Gazteriaren Kontseilu Orokorreko ordezkari bat.

2. Martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuko 4.1 ataleko a), b), c), d), f), i) eta l) taldeetako Kontseilari postuak Erakundeei, Elkarteei edo Konfederakundeei izendatzea, duten errepresentatibitatearen heinean egingo da.

## II. ATALBURUA.- EGITURA ETA EGITEKOAK

**6. atala.-** Honako hauek osatuko dute Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseilua, 13/1988 Legeko 8. atalean ezartzen denaren arabera:

- Lehendakaria.

- Lehendakariordea.

- Idazkaria.

- Kontseilariak.

**7. atala.-** Honako hauek betetzea dagokio Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Lehendakariari:

a) Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluaren ordezkotza egitea.

b) Plenoak eta Batzorde Iraunkorraren batzarrak gidatzea.

c) Kontseiluaren bilkuretarako deialdia egitea, Gaizerrenda finkatzea eta batzarra egin dadineko presatasuna neurtzea, hala behar izan dadinean.

d) Pleno eta Batzorde Iraunkorren batzarretako buru izatea, bilkurei hasiera eta amaiera eman eta, horiek burutze garaian, legeek ezartzen dutena, eztabaiden orekatasuna eta bateratutako borondatea behar bezala eratu dadin bermatuko duela.

e) Batzorde Iraunkorraren eta Lan Batzordeen ihardunen eta lanen berri aldian-aldian Kontseiluko kideei ematea.

f) Kontseiluaren ihardunak eta funtzionamendua gidatzea.

g) Kontseiluaren txosten, erabaki eta proposamenetarako baimena ematea bere izenpeaz.

h) Aurrekontuaren banaketa-proposamena Batzorde Iraunkorrari aurkeztea, Plenoak onarpena eman diezaion, aurrekontuaren kudeaketarako baimena ematea eta horri buruzko ziurtagiriak egitea, onarpenaren gai izan den banaketaren arabera.

i) Arautegi hau aplikatzeak sor ditzakeen zalantzei ebazpena ematea, Batzorde Iraunkorraren erizpena entzun ondoren.

j) Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko sektoreen errepresentatibitateari buruz sor daitezkeen arazoei irtenbideak ematea, horretan interesa duten erakundeei entzun ondoren.

k) Indarrean dauden arauak eman diezaioten beste edozein egiteko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko agintariei, beste Departamendu eta Instituzio batzuri, txostenak emateko eta Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluari proposamenak egin ahal izateko beharrezkotzat jo ditzan argibideak edo agiriak eskatu ahal izango dizkie Kontseiluko Lehendakariak.

Eska dakizkiokeen argibide edo agiriak eman egin beharko ditu Hezkuntza Administrazioak.

Era berean, Lehendakariak, Batzorde Iraunkorrari, gainontzeko Batzordeei, agintariei eta agintea duten langile aholkulariei dei egin ahal izango die Plenora, aztertu behar diren gaiak hobeto aztertu ahal izateko. Hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botua emateko.

**8. atala.-** 1. Lehendakariordeak, Lehendakariaren ordeak egingo du, kargua betegabe egotea, Lehendakaria ez egotea edo gaisorik egotea gerta dadinean eta horrek eman dakizkion egitekoak beteko ditu.

2. Lehendakariordeari egitekoak delegatzea gerta dadinean, Plenoari edo Batzorde Iraunkorrari horren berri emango die Lehendakariak, lehenengoaren edo bigarrenaren egitekoen gain horrek eragina izan dezan heinean.

**9. atala.-** 1. Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko organu administratiboa da Idazkaritza Teknikoa, gai administratiboen kudeaketa eta sorospen teknikoa eskaintzea dela bere egitekoa.

2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari dagokio Idazkari Teknikoa izendatzea, Sailean lan egiten duten langileen artetik egingo duela aukeraketa.

**10. atala.-** Honako egiteko hauek dagozkio Idazkari Teknikoari:

a) Plenoaren eta Batzorde Iraunkorraren bilkuretarako deialdiak egitea, Gaizerrenda gertatzea eta bidaltzea.

b) Plenoaren eta Batzorde Iraunkorraren bilkuretara joatea, hitz egiteko eskubidez baina botorik gabe.

c) Bilkurei buruzko aktak egitea.

d) Kontseiluaren akordioak bere izenpeaz autentifikatzea.

e) Kontseiluko organu ezberdinen aktak eta erabakiak zaintzea eta bai akordioei buruzko fitxeroa ere.

f) Kontseiluaren ihardunek behar dezaketen sorospen teknikoa eskatzea eta eskaintzea.

g) Agirien sarrera eta irteera erregistroa zaintzea eta bai artxiboko zerbitzua ere.

h) Espedienteen izapideak zaintzea, sartu daitezenezetik hasi eta irten edo artxibatu arte.

i) Kontseiluko langilegoaren eta barne zerbitzuen gertueneko buruzagitza egitea.

j) Kontseiluko kideak berritze edo ordezkatzeari buruzko agirien izapideak burutzea.

k) Plenoak egindako txostenen eta erabakien jarraipenaz informatzea.

l) Kontseiluaren gaien kudeaketa egitea.

m) Onarpenaren gai izan den aurrekontuaren kudeaketa eramatea.

n) Kontseiluaren ihardunei buruzko memoriaren aurre-dokumentua urtero lantzea, Batzorde Iraunkorrera bidaliko duela, behin-betiko eratzeko eta Plenoak onarpena eman diezaion.

ñ) Legeek eman diezaioten beste edozein egiteko.

**11. atala.-** Lehendakariak izenda dezan pertsonak burutuko du Idazkari Teknikoaren lana, hau ez egotea edo gaisorik egotea gerta dadinean.

**12. atala.-** Kontseilariak, Plenoaren bilkuretara eta hango kide izan daitezeneko Batzordeen batzarretara joan beharko dute, ez joatearen berri eman beharko dutela bertan egotea ezinezkoa baldin bazaie.

**13. atala.-** Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Lehendakariak, Kontseiluko bilkuretara joateari behin eta berriro eta justifikaziorik gabe utzi diezaioten kontseilarien izenen berri emango die haien proposamena egin zuten erakundeei edo, hala behar izan dadinean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

Izapide hau burutu ondoren, egoera aldatuko ez balitz, Kontseiluko Lehendakariak, Batzorde Iraunkorraren inizatibaz eta interesatuari entzun ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari emango dio horren berri, honek, erakundetik kanpo uztea komeni den ala ez erabakiko duela.

**14. atala.-** Honako eskubide hauek dituzte Kontseilariak:

a) Plenoaren edo hango kide direneko Batzordeetako bilkuretan parte hartzea, beren erizpideak azalduz.

b) Proposamenak egitea, Arautegi honetako 52tik 61rarteko ataletan ezartzen denaren arabera.

c) Beren egitekoak betetzeko beharrezko diren argibideak eskuratu ahal izatea Idazkari Teknikoaren bidez.

d) Zerbitzua dela eta, sor daitezten kalteordainak eskuratzea.

e) Legez onartuta egon daitezten beste edozein.

**15. atala.-** 1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak izendatuko ditu Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko kideak.

Erakunde bakoitzak, Kontseilari titularren ordezkari bat izendatzeko proposamena egin ahal izango du, edozein unetan haren ordezkotza egin ahal izango duela, arrazoizko zioak eman daitezenean.

Kontseiluko Lehendakariak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egingo dio ordezkariaren izendapen proposamena. Sailak izendatuko du.

2. Lau urtetarakoa izango da agintealdia eta, agintealdia amaitu baino bi hilabete lehenago, berritu edo sendetsi egingo dira 55/1989 Dekretuko 4. atalean aipatzen diren Kontseilari-talde bakoitzeko erdiak bi urtetik bi urtera, f), k), l) eta ll) apartaduetan aipatzen diren taldeak ez dira hemen sartzen) aipatutako Dekretuko 4. eta 5. ataletan ezartzen den prozedura erabiliko dela horretarako eta martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuko Aldibaterako Xedapenetatik Lehenengoaren salbuespen kasuetarako ezartzen denaren kaltetan gabe.

Eta hori, errepresentatibitatea dela medio, bidezko izan daitezkeen aldaketak kontutan hartu gabe.

3. Kontseilua berritzeko epeak, Kontseilua sortu zeneko egunetik hasita kontatuko dira.

4. Haren errepresentatibitatea izan dezaneko erakundeko kide izateari utz diezaionean Kontseilari batek, Kontseiluko Lehendakariari emango dio horren berri erakundeak.

5. Halaber, 55/1989 Dekretuko 4. ataleko i) eta j) apartaduetan aipatzen diren taldeetako kontseilariak izendapenaren zio izan ziren baldintzak galtzea gerta dadinean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Kontseiluko Lehendakariari emango dio horren berri.

6. Kontseiluko Lehendakariari egingo zaion idazkiz egingo dira kontseilarien karguzteak, proposamena egin zuen erakundeari emango diola horren berri Lehendakariak.

7. Kontseilarien karguzte eta izendapen aginduak, EHAAn argitaratuko dira.

8. 55/1989 Dekretuko 8. atalean aipatzen diren zioen bat dela medio, karguren bat hutsik gelditzea gerta dadinean, aipatutako Dekretuko 4. eta 5. ataletan ezartzen den prozeduraz bete beharko da.

**16. atala.-** Kontseilariak parte hartu beharko dute, bai ikerketak egiterakoan eta bai txostenak eta erabakiak ematerakoan ere.

**17. atala.-** Kontseilari kargua izatea ziurta dezan egiaztagiria emango die Kontseiluko Lehendakariak Kontseilariari.

### **III. ATALBURUA.- EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ESKOLA**

#### **KONTSEILUAREN IHARDUERA**



**18. atala.-** Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluak, Pleno eta Batzordeen bidez beteko du bere egitekoa, txostenak, erabakiak eta proposamenak emango dituela.

Honako hauek izango dira Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Batzordeak:

- a) Iraunkorra.
- b) Programazio, Eraikintza eta Ekipamendutarakoa.
- c) Hezkuntza Sistema Antolatzekoa.
- d) Giza Baliabideei buruzkoa.
- e) Hizkuntza Helburuei buruzkoa.
- f) Irakaskuntzaren Finantzabideei buruzkoa.

Subatzordeak sortu ahal izango dira gai jakin batzuk aztertu ahal izateko, egokitzen jotzen baldin bada.

#### PLENOARI BURUZ

**19. atala.-** Honako hauek izango dira Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Plenoaren egitekoak:

- a) Euskal Autonomi Elkarteko irakaskuntzaren egoerari buruzko urteko txostenari onarpena ematea.
- b) Kontseiluaren ihardunei buruzko urteko memoriari onarpena ematea.
- c) 55/1989 Dekretuko 9.3 atalean aipatzen diren gaiei buruzko erabakiak edo txostenak ematea.
- d) Aurreko apartaduan aipatu diren gaiei buruz Batzorde Iraunkorrak egin dituzan proposamenei onarpena ematea eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bidaltzea.
- e) Euskal Autonomi Elkartearen irakaskuntzak dituen arazoei buruzko proposamenak eta iradokizunak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bidaltzea.

f) Kontseiluaren Barne-Iharduerari buruzko Arautegia eta honek geroan izan ditzakeen aldaketak lantzea.

**20. atala.-** Urtean behin bilduko da Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Plenoa, hezkuntza sistemaren egoerari buruzko urteko txostenari eta burutu diren ekintzei buruzko memoriari onarpena emateko, arauz ezarrita dagoenaren arabera, informatu behar duenean eta, bere agintepekoak diren gaiari buruz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aholkua eska diezaionean; eta bai Plenoko kide diren eta boto-eskubidea duten kideen herenak proposatu dezanean, bilkuraren gai izango diren gai edo gaiak espreski aipatu behar direla.

**21. atala.-** Lehendakariak egingo du Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Plenoaren ohizko batzarrerako deialdia, hamar astegunetako aurretasunez gutxienez; eta, ezohizkoetarako, hiru astegunetako aurretasunez.

## BATZORDE IRAUNKORRARI BURUZ

**22. atala.-** Honako hauek dira Batzorde Iraunkorraren egitekoak:

a) Euskal Autonomi Elkartean irakaskuntzan duen egoerari buruzko Txosten proiektua lantzea.

b) Kontseiluaren Ihardunei buruzko Urteko Memoriaren proiektua lantzea, gainontzeko Batzordeen aurre-txostenak kontutan hartuko dituela horretarako.

c) Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Plenoaren agintepekoak diren gai guztiak gertatzea orohar.

d) Subatzordeak sortzea, gero onarpenaren gai izango diren txostenak edo lanak idazteko eta kasu bakoitzean horiek erabili beharko duten ihardun-prozedura onartzea.

e) Plenoak landu beharreko txosten eta diktamenei buruzko aurre-proposamenak lantzeko ardurak, Kontseiluko gainontzeko Batzordeen artean banatzea.

f) Batzordeek landutako txosten eta diktamen proposamenak ikertzea eta horien izapideak egitea. Honako hauei ebazpena ematea:

- Egin den lana handiagotu edo aldatzeko, lan horiek Batzordera itzultzea.

- Beste Batzorde batetara bidaltzea.

- Plenoara bidaltzea.

g) Bere ihardunen berri Plenoari ematea.

h) Proposamenak lantzea eta Plenoari horiek aurkeztea.

i) 55/1989 Dekretuko 11.2 atalean aipatzen diren gaiei buruzko txostenak eta proposamenak Hezkuntza Administrazioarentzako lantzea.

j) Gainontzeko Batzordeen lana koordinatzea.

k) Kontseiluak onartu eta Hezkuntza komunitatearentzako garrantzi berezia izandezaketen akordioak ezagutu daitezela zaintzea.

l) Plenoak delegatu diezazkionak.

**23. atala.-** Honako hauek osatuko dute Batzorde Iraunkorra:

a) Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Lehendakaria, Batzorde Iraunkorreko Lehendakaria ere izango dela.

b) Kontseiluko Lehendakariordea.

c) Gainontzeko Batzordeetako Lehendakariak, Kontseiluko Lehendakariak izendatuko dituela.

d) Gurasoen taldeko ordezkari bat.

e) Ikasleen taldeko ordezkari bat.

f) Irakasleen taldeko ordezkari bat.

g) Toki Administrazio Taldeko ordezkari bat.

Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Idazkaria, Batzorde Iraunkorreko Idazkaria ere izango dela.

**24. atala.-** d) (gurasoak), e) (ikasleak), f) (irakasleak) eta g) (Toki Administrazioa) taldeei Batzorde Iraunkorrean dagozkien kideak, kolektibo bakoitzeko Kontseilariak izendatuko ditzute honako prozedura honi jarraituz:

a) Ordezkaria izendatzeari dagozkionetan, kolektibo bakoitzeko kideen arteko adostasuna ematea gerta dadinean, Kontseiluko Lehendakariari egingo diote horren proposamena idatziz, talde bakoitzeko Kontseilari guztiek izenpetu beharko dutela akordioaren akta.

b) Ahobateko akordiorik ez egotea gertatuko balitz, Batzorde Iraunkorreko kideen aukeraketa egingo da, lau hauteskundemahai eratuko direla horretarako: gurasoena, irakasleena, ikasleena eta Toki Administrazioarena.

Kolektibo bakoitzeko kiderik zaharrena den Kontseilariak (mahai buru eta taldeko bozeramaile izango dena) eta gazteenak (idazkaria) osatuko dute mahai bakoitza.

Papeletaz baliatuko dira hauteskundeak egiterakoan, hautesle bakoitzak Kontseilari titular eta ordezkari baten aldeko botoa idatziko duela bertan.

Talde bakoitzean botorik ugarien lortu duten Kontseilariak izango dira kide titular eta ordezko, hurrenez-hurren.

Berdinketa egotea gertatuko balitz, botorik gehien lortu dituztenen aldeko bigarren botaketa egingo litzateke.

Hori egin ondoren, berdinketak jarraituko balu, Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Lehendakariak emango dio ebazpena arazoari, erakundeei aholkua eskatu ondoren.

Hauteskunde ekintzari buruzko akta egingo da, talde bakoitzeko Kontseilari guztiek izenpetuko dutela eta Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Lehendakariari bidaliko zaiola.

Kontseilariak Batzordeei adskribatzeak, bi urteko iraupena izango du gutxienez.

**25. atala.-** 1. Batzorde Iraunkorrek kide ordezkariak, Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko titular izan beharko dute.

2. Hautaketaren gai izan diren titularra, arrazoiren bat dela medio, ez egotea edo gaisorik egotea gerta dadinean, ordezkariak egingo dute horien lana, Kontseiluko Lehendakariari horren berri eman ondoren.

3. Batzordeetako Lehendakariak, arrazoiren bat dela medio, ez egotea edo gaisorik egotea gerta dadinean, Kontseiluko Lehendakariak egingo ditu horien ordezkoen izendapenak.

**26. atala.-** Batzorde Iraunkorra, bilduko da:

- a) Hilean behin gutxienez.
- b) Lehendakariak beharrezkotzat jo dezanean.
- c) Bertako kideen herenak eska dezanean, aztertu daitezela nahi deneko gaiak zehatz-mehatz eman beharko direla.
- d) Plenoaren batzarra baino lehen beti.

## GAINONTZEKO BATZORDEEI BURUZ

**27. atala.-** 1. Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluak, beste batzurekin batera, bere gain dituen egiteko orokorretatik legozkiekeen gai bereziak aztertzeke eta ikertzeke organu espezializatuak dira, Programazio, Eraikuntza eta Ekipamendu, Hezkuntza Sistemaren Antolaketa, Giza Baliabide, Hizkuntza Helburu eta Irakaskuntzaren Finantzabide Batzordeak.

2. Batzorde iraunkorraren txostena behar duten gaien kanporaketa gertatzea ere Batzordeei dagokie, gaia dela eta, Batzorde Iraunkorraren eritzitan, bere agintepekoak diren hastapen-diktamenak lantzerakoan, ponente gisa egingo dutela lan.

**28. atala.-** Batzorde Iraunkorrak eska dakizkien txosten guztiak landu beharko dituzte Batzorde horiek eta haren eritzipean jarri.

**29. atala.-** Honako hauek osatuko dituzte Arautegi honetako 26. atalean aipatzen diren Batzordeak:

a) Lehendakaria, Kontseiluko Lehendakariak izendatuko duela.

b) Zehaztu gabeko Kontseilari kopuru bat, honako erizpide hauei jarraituz egingo dela horien atxikipena:

1. Gurasoen taldeko ordezkari bat.

2. Irakasleen taldeko ordezkari bat.

3. Toki Administrazioiko taldeko ordezkari bat.

4. Ikasleen taldeko ordezkari bat.

5. Kontseiluko gainontzeko sektore sozialetako ordezkariak, Batzorde bateko baino gehiagoko kide titularra ezin daitekeela izan kontseilari bera eta Batzordeetan ahal den Kontseilari ugarien izan daitezen ahaleginak egingo direla.

6. 2, 3 eta 4 puntuetan aipatzen diren kolektiboen ordezkarien aukeraketa egiteko prozedura, Arautegi honetako 24. atalean ezartzen denaren arabera izango da.

7. 5 puntuan aipatzen diren kolektibo ezberdinen ordezkarien aukeraketa egiteko prozedura, Kontseiluko Lehendakariak landuko du eta Batzorde Iraunkorrak emango onarpena.

**30. atala.-** Honako hauek izango dira batzordeetako Lehendakarien egitekoak:

a) Batzordearen batzarretarako deialdia egitea, Idazkari Teknikoaren bidez eta 10. atalean ezartzen denaren arabera.

b) Batzarretako buru izatea eta eztabaidak gidatzea.

c) Dagokion Batzordeari eskatutako txosten, diktamen edo proposamenak, Batzorde Iraunkorrari aurkeztea Idazkari Teknikoaren bidez.

d) Horren ardura eman zaioneko lana egiteko behar den informazioa Hezkuntza Administrazioari eska diezaiola, Kontseiluko Lehendakariari eskatzea.

e) Batzordearen bozeramaile izatea, bai Plenoaren eta bai Batzorde Iraunkorraren aurrean ere, Batzordeko beste kideren baten eskutan utzi ahal izango duela egiteko hori.

f) Batzordeko kideren batzuk lan-bilkuretara, arrazoirik gabe eta behin baino gehiagotan, ez etortzearen berri Batzorde Iraunkorrari ematea.

g) Batzorde Iraunkorrean aztertu diren gaiez, Batzordeak informatzea.

Lehendakariak, Batzordearen proposamenez edo beren kabuz, eskatu ahal izango diote Euskal Autonomi Elkarte Eskola Kontseiluko Lehendakariari, aitua den pertsona edo pertsonen dei egin diezaiela, Batzordeari azterketetan laguntzeko.

**31. atala.-** 1. Batzar egutegia eta ihardun-erregimen propioak gertatuko dituzte Batzordeek, Batzorde Iraunkorrari bidaliko dizkiotela onarpena eman diezaien.

2. Bi hilabetetik bi hilabetera bilduko dira gutxienez Lan Batzordeak.

**32. atala.-** Batzorde bakoitzak, bere idazkaria izango du, bertako kideen artetik aukeratutako eta batzarrei buruzko aktak idatziko dituela. Onarpena eman ondoren, Lehendakariak, horien kopia bat bidaliko dio Idazkari Teknikoari, honek, gorde eta artxiba dezan.

## BILKUREN ERREGIMENARI BURUZ

**33. atala.-** Lehendakariak, gero ezartzen diren epeen barruan, egingo dituen Plenoaren eta Batzorde Iraunkorraren bilkuretarako deialdiek, Gaizerrenda, egingo direneko eguna eta tokia jasoko dituzte eta aztertu behar diren gaiak ezagutzeko behar diren agiriak erantsiko zaizkio.

**34. atala.-** Kontseilariak egindako eskabideak kontutan hartuz, Lehendakariak finkatuko duen Gaizerrenda, ezin aldatu ahal izango da bertan dauden guztiek ahobatez eskatzea gerta dadinean izan ezik.

**35. atala.-** Plenoaren eta Batzorde Iraunkorraren batzarretarako deialdiak, hamar eta bost lanegunetako aurretasunez egingo dira hurrenez-hurren eta, presatasun arrazoiak ematen direla gertatuko balitz, hiru eta 48 ordutako aurretasunez hurrenez-hurren.

**36. atala.-** 1. Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko batzarrak, nahiz Plenoarenak, nahiz Batzorde Iraunkorrarenak, egin ahal izateko, Lehendakaria edo Lehendakariordea, Idazkari Teknikoa edo honen ordezkoa egon beharko dute bertan eta, lehenengo deialdian, hori osatzen duten kideen erabateko gehiengoa.

2. Quorum hori emango ez balitz, lege-indarrez eraturik da organua bigarren deialdiz eta orduerdi geroago, nahikoa izango dela dituen kideen herena bertan egotea.

3. Lehenengo deialdiz egiten ari direneko batzarrari hasiera eman eta Batzordea osatzen duten kideetakoren batek aldegitia gertatuko balitz, aurrera jarraitu ahal izango da, bigarren deialdirako eskatzen den kide-kopurua bertan egon dadinaren baldintzapean.

4. Aurreko bi zenbakietan aipatu diren zirkunstantzietakoren bat ematen delako, bigarren deialdizko erregimenean bilkura egin dadinean, Lehendakariak, gaizerrendako gai jakin batzuk kendu ahal izango ditu izan dezaten garrantzia kontutan hartuz, lehenengo deialdiaren araberrako tratamenduan eskatzen diren balditzak eman daitezenean aztertu ahal izango direla gai horiek.

**37. atala.-** 1. Lehendakariak, Batzorde Iraunkorrek hurrengo batzarra gertatzeko egin dezan bilkuran, Kontseiluko kideek Plenoaren bilkuran nola parte hartuko duten eratze moduari buruzko informazioa emango du.

2. Partehartzeak eratzeak, erakunde eta talde berdineko kideen arteko denbora akumulazioaren posibilitatea jaso ahal izango du.

**38. atala.-** 1. Bertan daudenen botuen gehiengo arruntez hartuko dira akordioak, honako kasu hauetan izan ezik, hauetan erabateko gehiengoa beharko dela:

- Barne Erregimenerako Arautegiari buruzko proposamena eta geroan izan ditzakeen aldaketak onartzea.

- Lege aurreproiektuei buruzko diktamenak.

- Irakaskuntzaren egoera orokorrari buruzko txostena.

2. Botoa, bakarra eta inoren eskutan utzi ezinezkoa da.

**39. atala.-** Honako era honetan hartuko dira akordioak:

a) Lehendakaritzaren proposamena baieztatuz.

b) Ohizko botazioz: lehenengo, onartzen dutenak; gero, ezezkoa ematen dutenak eta, hirugarren, abstentzioa egiten dutenak.

c) Papeleta bidezko botazioz, pertsonak aukeratu behar direnean edo bertan daudenetatik %10ak hala eska dezanean.

**40. atala.-** 1. Kontseiluko edozein kidek, eskatu ahal izango du, gehiengoak onartzen duen akordioaren aurkako bere eritzia espreski erasota gel dadila aktan.

2. Halaber, gehiengoaren akordioaren aurkako boto partikularra aurkeztu ahal izango du Kontseilariak edo, bilkurari amaiera eman baino lehen, aurkeztuko duenaren berri eman, Kontseiluko Lehendakaritzara bidali beharko duela idatziz eta bi eguneko epearen barruan.

3. Kontrako botoa eman duten Kontseilariak, boto partikularrari atxiki ahal izango zaizkio edo berena idatzi, bilkura amaitu baino lehen eskubide hori gorde dezatenaren baldintapean.



## TXOSTENAK EMATEARI BURUZ

**41. atala.-** Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluak, txosten edo diktamen bat lantzearen komenigarritasuna ofizioz edo norbaitek ahal eskatuta ontzat eman dezanean, ezberdina izango da prozedura, txostena emate hori, Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluaren Plenoaren edo Batzorde Iraunkorraren agintepekoa izan dadinaren arabera.

**42. atala.-** Txostena egitea Plenoaren egintepekoa izatea gerta dadinean, Batzorde Iraunkorriari egingo dio dei Eskola Kontseiluko Lehendakariak, Kontseiluak, kideen gehiengoaren erabakiz, Kontseilari bat edo batzuk izendatuko dituela aurre-txostena lantzeko edo Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko Idazkari Teknikoari emango zaiola ardura hori.

Dena dela, izendapenaren gai izan den edozein Kontseilarik, Kontseiluko Idazkari Teknikoari eskatu ahal izango dio laguntza teknikoa aurre-diktamena idazte aldian.

Lehen aipatu diren egiteko horietaz aparte, Eskola Kontseiluko Idazkariak, ikertu behar den gaiak sor ditzan alde legal eta teknikoei buruzko informazioa eman beharko du astebeteko gehienezko epearen barruan eta espreski eskatutako gai bereziei buruzkoa era bai.

Txostenpean jarriko den arazo edo arazoek, konplexutasun nabarmen edo hedadura handiko alde teknikoak sortzen baldin badituzte bakarrik egingo da epearen luzapena eta, dena dela, Idazkariak, Eskola Kontseiluko Lehendakariari egin beharko dio espreski eskabidea.

**43. atala.-** Aurre diktamena idatzi ondoren, Batzorde Iraunkorreko kide diren Kontseilari guztiei emango zaie diktamenaren testua, Batzordeak bilera egin baino bost astegun lehenago gutxienez. Epe horren barruan, Kontseilariak, nahi baldin badute, diktamenak izan ditzan hainbat punturi enmendakinak egin ahal izango dizkiete, Kontseiluaren erregistroan aurkeztu beharko dituztela idatziz eta bilkurari ekin baino 48 orduko aurretasunez.

Lehendakaritzak, Kontseilariari bidaliko dizkie enmendakin horiek, hedatu eta ezagutu ditzaten.

**44. atala.-** Batzorde Iraunkorra bildu ondoren, botaketapean jarriko da diktamenaren testua, testua oso-osoan itzultzea bidezkoa den ala ez erabakiko dela lehenengo. Erabakia baiezkota izango balitz, hastapen-proposamen berria idatziko luketen Kontseilari berriak izendatuko lirateke bilkura horretan bertan.

Oinarrizko testu izateko eta onarpena jaso duen beste testu alternatibo bat aurkeztea gertatuko balitz, Arautegi honetako 43. atalean zehazten den prozedurari jarraituko litzaioke.

**45. atala.-** Oharrak edo enmendakinak sortu dituzten txosteneko edo diktamenetako alde ezberdinei buruzko eztabaida eta azterketari ekingo zaio, bidezkoa baldin bada. Puntu bati buruz enmendakin bat baino gehiago egotea gertatuko balitz, batabestearen ondoren baztertzea izango litzateke botazio sistema, Kontseiluaren erregistroan aurkeztean eman den hurrenkera errespetatuko dela.

Proposamenaren gai izan den enmendakina bazter uztea gerta dadinean, boto partikular gisa gel dadineko eskabidea egiteko eskubidea du proposatu duen Kontseilariak edo Kontseilariak.

**46. atala.-** Parte hartzen duten Kontseilarien artean konpromezu-enmendakinen bat onartzea gertatuko balitz, idatzizko testua egin ondoren bakarrik jarri ahal izango litzateke botaketapean; horretarako, Batzorde Iraunkorraren bilkura 24 orduz gehienera atzeratu ahal izango da eta bilkurari ekin baino lehen eta botaketa egin aurretik enmendakin horren kopia eman beharko zaiela Kontseilariari.

**47. atala.-** Ondoriozko testua eta, hala baldin bada, egon diren boto partikularrak sartuz, Kontseilari guztiei bidaliko die Kontseiluko Lehendakariak, Plenoaren hurrengo batzarreko eguna baino hamar astegun lehenago.

**48. atala.-** 1. Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluko aurre-ekintzei eta bilkuraren garapenari aplikagarri izango zaie Arautegi honetako 43. eta 47. ataletan ezartzen dena, txostenari azken onarpena emateari dagozkionetan. Ez da aplikagarri izango, epeei buruz 43. atalean ezartzen dena, 10 eta 5 egunetakoak izango direla epeak hurrenez-hurren.

2. Enmendakin partzialen botaketa egin ondoren, testu osoa jarriko da botaketapean.

**49. atala.-** Eskatzen den txostena, Batzorde Iraunkorraren agintepkoa baldin bada, 55/1989 Dekretuan ezartzen diren Batzordeetatik, Batzorde Iraunkorraren eritzitan eta gaia kontutan hartuz agintedun izan daitekeen Batzordeari legokioke hastapen diktamena lantzea; horretarako, dagokion botaketa egingo da eta, berdinketa ematea gertatuko balitz, Lehendakariaren botoa izango litzateke ebazpenbide.

**50. atala.-** 1. 42.tik 47. atalera artekoetan ezartzen dena izango da Batzordeak hastapen-diktamena lantzeko erabiliko lukeen prozedura, hori idazteko ardura izango duen Kontseilariak edo Kontseilariak aukeratzean izan ezik, aukeraketa hori Batzordeari dagokiola eta erabateko gehiengoz.

2. Bai aurre ekintzei eta bai Batzorde Iraunkorraren bilkuraren garapenari ere, aplikagarri izango zaie 43.tik 47. atalera artekoetan ezartzen dena, txostenari azken onarpena emateari dagozkionetan.

3. Diktamenak, txostenak eta proposamenak, dagokion agintariari bidaliko zaizkio Lehendakariaren eta Idazkari Teknikoaren izenpe eta guzti, honako argibide hauek erantsiz: Bilkuran egon direnen izen-abizenak; ahobatez, gehiengoz edo Lehendakariak bete botoz berdinketa apurto duelarik onartu diren ala ez eta boto partikularrak, egon baldin badaude.

**51. atala.-** Gairen bat aztertzerakoan, Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluari behar den aholkua eskatu ez baldin bazaio, Kontseiluko Lehendakariak, Batzorde Iraunkorrari aholkua eskatu ondoren, egokitze jotako neurriak hartuko ditu.

## PROPOSAMENAK EGITEARI BURUZ

**52. atala.-** Urriaren 28ko 13/1988 Legeko 14. atalean aipatzen diren gai buruzko eta Euskal Autonomi Elkarteko irakaskuntzarekin lotura duten beste edozein gai buruzko proposamenak egin ahal izango dituzte Kontseiluko kideek Batzorde Iraunkorraren barruan.

**53. atala.-** Arrazoi eta guztizko eta zehatzak izan beharko dute proposamenek, justifikaziorik diren arrazoiaren eta proposamenaren beraren arteko bereizketa egin beharko dela.

**54. atala.-** Kontseiluko Idazkari Teknikora bidaliko dira proposamenak idatzita eta, Idazkaritzak, Lehendakariara bidaliko ditu, zein izapide bete behar dituen erabaki dezan, bere edukina eta justifikazioa ikertu ondoren.

**55. atala.-** 1. Proposamena ez dela Kontseiluaren agintepekoa edo ez duela bere edukina argi eta garbi aditzera ematen joko balu Lehendakariak, izenpetu duen Kontseilariari bidaliko dio, itzulpena justifikatzen duten arrazoi eta guzti. Proposamena, Kontseilari batek baino gehiagok izenpetzea gerta dadinean, izenpeetan lehenengo agertzen denari itzuliko zaio.

2. Hartu den erabakiarekiko ezadostasuna izango balu Kontseilari horrek, Batzorde Iraunkorrari ezadostasun horren berri eman ahal izango dio. Arrazoiak aztertu ondoren, ebazpena emango dio Batzorde Iraunkorrari.

**56. atala.-** Deialdia egin gabe egon eta Batzorde Iraunkorrak hurrengo egingo duen bilkurako gaizerrendan sartuko dira proposamenak.

**57. atala.-** 1. Proposamena izenpetu duenak eta, hala gerta dadinean, izenpe-zerrendako lehenengoak egingo du proposamenaren defentsa, Batzorde Iraunkorraren aurrean.

2. Partehartze txandari ekingo zaio ondoren eta, hori amaitzean eta ponenteak bere erreplika azaldu ondoren, botaketapean jarriko da proposamenaren onarpena.

3. Kontseilari ponentea edo proposamenaren izenpetzaileen artean lehenengo dena Batzorde Iraunkorreko kide ez baldin bada, dei egingo zaio bilkurara, proposamenaren gai izan den proposamenaren ponente lana egin dezan, botoa emateko eskubiderik gabe.

**58. atala.-** Kontseiluko kideek parte hartu izanaren ondorioz, ponenteak proposamenean aldaketaren batzuk onartzea gertatuko balitz, bilkurakideei bilkuran bertan idatziz eskuratu ondoren bakarrik jarri ahal izango litzateke botaketapean, aldaketak hain funtsezkoak izan ez daitezen kasuan izan ezik. Kasu honetan, ponenteari eta aldaketaren proposamena egin duenari eman ahal izango zaie azken idazketa batera egin dezatenaren ardura.

**59. atala.-** Proposamenaren edukina, Plenoaren edo Batzorde Iraunkorraren agintepekoak diren gaiei buruzkoa den ala ezari buruzko zalantzak sortuko balira, Lehendakariak hartuko du erabakia, Batzordeari entzun ondoren.

**60. atala.-** Plenoaren agintepekoak diren gaiei buruzko proposamenak izan daitezenean, oraindik deialdia egin gabe egon eta organu honek gauzatuko duen hurrengo bilkuraren Gaizerrendan sartuko dira, Arautegi honetako 20. atalean ezartzen den deialdia eskatzeko ahalmena Kontseilariak erabil dezatenaren kaltetan gabe.

**61. atala.-** Proposamenak Plenoan eztabaidetzea eta onartzea, 57. eta 58. ataletan ezartzen direnei atxikiko zaizkie.

## IRAKASKUNTZAK EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN DUEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA EZTABAIDATZEA ETA ONARTZEA

**62. atala.-** Irakaskuntzak Euskal Autonomi Elkartean duen egoerari buruzko urteko txostena, Batzorde Iraunkorrek egingo du, Batzorde bakoitzak duen ekIntza-eremuari buruz gainontzeko Batzordeek aurkeztu ditzaten txostenak izango dituela eskuartean horretarako. Kontseiluko Plenoak emango dio onarpena.

**63. atala.-** 1. Txosten hori onartu dadineko Kontseiluaren Plenoaren bilkura, dagokion kurtsoa amaitu baino lehen egingo da, Batzorde Iraunkorrek, arrazoi eta guztizko zioa dela medio, bilkura hori hurrengo hiruhilabetekora atzeratu dadila eska dezanean izan ezik.

2. Plenorako deialdiarekin batera banatzeko epearen barruan landu beharko du txostena Batzorde Iraunkorrek.

**64. atala.-** Aurreko atalean aipatzen den Plenoa baino lehen egin behar den Batzorde Iraunkorren bilkura, 42/47ra arteko ataletan ezartzen denari atxikiko zaio.

**65. atala.-** 1. Irakaskuntzak Euskal Autonomi Elkartean duen egoerari buruzko urteko txostena Plenoak onartzerakoan, Arautegi honetako 48. atalean ezartzen denaren arabera jokatu da.

2. Irakaskuntzak Euskal Autonomi Elkartean duen egoerari buruzko urteko txostena onartzeko, bertan daudenen erabateko gehiengoa beharko da.

3. Txostena, onartu ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bidaliko da eta Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseiluak argitaratu egingo du.

## **AZKEN XEDAPENA**

EHAAn argitara dadin egunean jarriko da indarrean Arutegi hau.